

IKASLEEK GAUR AURKEZTUKO DITUZTE *DEMOLA BILBAO* PROGRAMAREN BAITAN ENPRESEK PLANTEATUTAKO ERRONKEI AURRE EGITEKO IRTENBIDEAK

- **Bilboko Udalak bigarren urtez jarraian antolatu du programa hau, gazteak enpresa-mundura hurbiltzeko helburuarekin.**
- **Bilborock aretoak 17:00etatik aurrera hartuko du proiektuak aurkezteko eta bigarren edizioari amaiera emateko ekitaldia. Oihane Agirregoitia, Gazteria eta Kirol Saileko zinegotzia bertan izango da.**
- **Guztira zortzi unibertsitate eta lanbide-heziketa zentrotako 27 ikasle lau enpresatako langileekin batera lanean aritu dira, planteatutako erronkei aurre egiteko irtenbideak bilatzeko.**

(Bilbon 2017ko maiatzaren 24an).- Bilboko Udalaren **Demola Bilbao** programak, ikasle gazteak lan-mundura hurbiltzeko xedea duenak, arratsalde honetan aurkeztuko ditu bigarren edizioeko emaitzak. Ikasturte honetan zehar, zortzi prestakuntza-zentrotako 27 ikasle lau enpresa parte-hartzailek planteatutako erronka zehatzei aurre egiteko irtenbideak garatu dituzte, eta gaur ezagutaraziko dira. Proiektuak aurkezteko ekitaldia 17:00etatik aurrera egingo da Bilborock-en. Bertan, Oihane Agirregoitia Gazteria eta Kirol Saileko zinegotzia izango da.

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza udal-sozietatearen bitartez, enpresen beharrezan irtenbideak emateko proiektu berritzaileak garatzeko asmoarekin antolatu du programa hau. Erronka horiei erantzun ahal izateko, diziplina anitzeko taldeak sortu dira lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasleen eta enpresetako langileen artean, guztiek batera elkarrekin sortzeko prozesu bati ekin diezaioten. Horrela, gazteak enpresa-munduarekin harremanetan jartzeaz gain, proiektu berritzaileen garapenean ere parte hartuko dute.

Bigarren edizio honetan parte hartu duten ikasleak goi mailako heziketa zikloetako edo unibertsitate graduatuko azken urteetan daude. Demola programa profesionalek eskaintzen dute eta hiru hilabete eta erdiko prozesu batean egituratuta dago. Euren hitzetan, TALDE-LANA sistematikoa da eta aurreikusi bezala funtzionatzen du. . Pasio eta talentu handiko gazteek osatutako diziplina anitzeko talde horretan, ideiak, gaitasunak eta ikuspuntuak uztartzen dituzte.

Hona hemen programan parte hartu duten eta euren proposamenak aurkeztuko dituzten prestakuntza-zentroak: **Ibarrekolanda BHI, Elorrieta-Errekamari BHI, Harrobia Ikastola, Tartanga LHII, Nikolas Larburu LHII, EHUko Ingeniaritza Industrial, EHUko Ingeniaritza informatikoa eta EHUko Matematikak.**

ENPRESA PARTE HARTZAILEAK

Edizio honetan parte hartu duten enpresek jarduera-eremu oso desberdinetan egiten dute lan, teknologiatik hasita merkataritzara. Oraingoan, honako enpresa hauek parte hartu dute: **Gestionet**, **Drone by Drone**, **Rafael Matías Tejidos** eta **Matrici Sociedad Cooperativa**. Guztiek ere esperientzia zabala daukate euren sektorean.

Gestionet enpresak hamabost urte baino gehiago daramatza ikasketak errazteko eta edukiak transmititzeko tresna teknologikoak eskaintzen, enpresa pribatu, ikastetxe eta erakunde publikoentzako.

Drone By Drone enpresak droneak operatzen ditu. Kalitate handiko argazkien eta bideoen grabazioetan adituak dira eta droneen bidez lan teknikoak egiten dituzte. Abangoardiako teknologietan esperientzia handia daukate eta Estatuaren iparraldeko erreferente bilakatu dira.

Bestalde, Rafael Matías Tejidos ehunaren sektoreko erreferentetako bat da Bilbon. 1957an sortu zen eta ordutik egungo ehunik onenak hautatzen ditu bezeroen beharrianetara egokitzeko.

Azkenik, Matrici Soc. Cooperativa, Mondragon Korporazioaren parte dena, automoziorako karrozeria osagaiak eraiki eta sortzeko irtenbide globalen eta neurrira egindako irtenbideen liderra da Europan. Merkatuan hogeitau urte baino gehiagoko esperientzia daukate, eta euren trokelak Europako fabriken % 80an aurki daitezke.

ENPRESEK PLANTEATUTAKO ERRONKAK

Gestionet: egoera klimatikoak jasan ditzaketen sentsoreak diseinatu eta sortzea proposatzen du, aginte-mahai batera informazioa bidaltzeko, hartara, udalean erabakiak hartzea errazagoa izan dadin.

Drone by Drone: tresna bat sortzea proposatzen du, alde batetik, droneak hegaldian zehar hartzen dituen datuak eta erregistro informatikoak jasotzen dituen eta, bestetik, egokitzat jotzen diren aginduak droneen softwarean ezartzea ahalbidetuko duena.

Rafael Matías: Internet bidezko salmentaren bidez salmentak areagotzea, bezeroaren jokabidea identifikatzea eta bezeroarentzako zerbitzu berritzaile bat diseinatzea, salmentak areagotuko dituena.

Matrici: Bi erronka planteatu ditu: 1. erronka: ezagutza antolatu eta estandarizatzea erakundearen funtsezko fase guztietan, prozesu osoan zehar esku hartzen duten pertsona guztiak tartean sartzeko eta ezagutza erakunde osoaren esku egon dadin lortzea. 2. erronka: Fabrikarako bisitan errealitate areagotua aplikatzea, bisitariak sistemarekin elkarrekintzan aritu ahal izan daitezen eta ikuspegi global zehatzago eta errealistago bat izan dezaten.

PRESTAKUNTZA-ENPRESA LOTURA ETA NAZIOARTEKO HEDADURA

Demola Bilbao programak prestakuntzaren eta enpresaren arteko lotura indartzen, gazteen enplegarritasuna hobetzen eta esperientzia errealen bidez talentua sustatzen du. Programa honi esker, ikasle-taldeek emandako ideia eta jardunbide berrien bidez enpresek euren lehiakortasuna indartzeko funtsezko gakoak lortzen dituzte.

Demola terminoak esanahi hau dauka: demoak sortzen diren espazioa. Temperen, Finlandian, sortutako nazioarteko plataforma bat da, ikasleen, unibertsitateen eta enpresen artean elkarrekin sortzeko proiektu berritzaile irekiak eratzea ahalbidetzen duena.

Azken bederatzi urteetan, 600 enpresak baino gehiagok konfiantza izan dute Demola programan. Enpresa parte hartzaileen % 70ak ikasle-taldeek sortutako maketa, demo eta prototipoak ontzat eman eta eskuratu dituzte. Horrez gain, gazteen % 20 inguruk esperientzia hau partekatu duen enpresarekin lan egiteko eskaintza jaso du.